

Setien

Euskaldunon Egunkaria, 1993-01-05: 2.

Eguberri eta Urteberri hauen mezu nagusia orain ia bi mila urteko bera da: "Pakea borondate oneko gizonentzat"; zaila hau lortzea, nonbait, oraindik pakearen ederra lortu nahian dabil eta gizakia. Honen erroetan bizi diren gorrotoa, borroka eta gerra gizona berarekin jaiotzen direla dirudi, gizateriaren liburu zaharrenak Kainen bitartez adierazten dituen bezala. Ez bakarrik, zeren eta zuzentasunaren eta maitasunaren irrika eta gizakiak berekin dituela erakusten baitigu iturri berak: egia da, noski, badela borondate onekorik ere. Gure herrian, bestetan bezala, bada borondate oneko gizonik. Bere bizia lan honi eskaini diotenik ere bai. Hauen artean bakar bat aipatu behar banu, horretarako ofizioa duen Jose Maria Setien gotzai jauna izendatuko nuke. Egingo ditu hutsak, gizona baita, baina zentzu kritiko honekin lanean aspaldi ari den honek egin du gure herriaren lehen lerroan egoteko merezimendurik. Itxaropen honekin egin berri digu deia. Bakea ez da aurpegi bakarreko lorpena izango gauzatzen denean, gauzatzen bada, anitzena baizik, eta gure herrian Euskal Elizak irabazi du garai zailenetan orain kontuan edukitzeko kreditua. Madrilen eta gure herrian bertan batzuk besterik uste dutenak badira ere, badu beste askoren ustetan Euskal Elizak gaur zertaz arduratu eta zertaz borrokatu. Bere alorra da pakegintza, propioki.